

# Parte hartu eta erabaki!

## OOG-RAKO HAUTESKUNDEAK 2024

Datozen egunetan gure ikastetxeetako OOG/eskola-kontseiluetarako hauteskundeak egingo dira. Horregatik, garrantzitsua da familien ahotsa presente egotea.

### ZURE SEME-ALABEN ESKOLA HOBETZEN AKTIBOKI LAGUNDU NAHI DUZU?

Familien eskaerak helarazi, zure eskola edo institutua hobetu eta gainerako hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritu nahi baduzu, [aurkeztu zeure burua zure ikastetxeko eskola-kontseilurako hautagai gisa](#).

Bi modutan egin dezakezu:

- Zure guraso-elkartearekin batera.
- Banaka.

- ❶ GARRANTZITSUA: Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 21etik azaroaren 4ra izango da. Hurbildu zaitetz guraso-elkartera edo ikastetxeko zuzendaritzara.

### ZURE IKASTETXEKO FAMILIEN LANA BABESTU NAHI DUZU?

Hautagaitzarik aurkeztu nahi ez baduzu, hauteskundeetan parte har dezakezu botoa emanaz, zure ikastetxeko familien ordezkaritza babestuz eta Euskal Eskola Publiko demokratikoa bultzatuz.

Nola eman dezaket botoa?

- Aurrez aurre.
- Posta arruntez edo mezularitzaz, edo botoa zentroko beste pertsona baten bidez emanaz. Eskatu zure ikastetxeko zuzendaritzari beharrezko informazioa eta dokumentazioa. Gogoratu zure botoak hauteskunde-batzordearen esku egon behar duela hauteskundeak egiteko aurreikusitako egunaren bezperan.

- ❶ GARRANTZITSUA: Hautaketa-ekintzak azaroaren 7tik 25era bitartean izango dira (kontsultatu data zehatza zure zentroan).

FAMILIENTZAKO  
INFORMAZIO-  
ORRIA

ehige 

info+ ehige.eus

Euskal Herriko Ikasleen  
Gurasoen Konfederazioa

